

Irakur itzazu hurrengo **animalien asmakizunak** eta ia dakizun zer diren:

Nik esan, zuk entzun, pentsatu eta erantzun

Batetik bestera
ibiltzen da lur azpitik,
zulo asko egiten
ezer ikusi gabe,
zuk ere ez pentsa
erraz harrapatzerik.

Zer da?

Beltz edo marroi,
txiki eta langile finak
geldi egonezinak,
beti dabilta batera eta bestera
baizna ezin hautsik atera.

Zer da?

Txaleko zuriz
eta frak beltzez jantzia,
hegan egiten ez duen itsasoko
hegaztia.

Zer da?

Ez du hankarik
eta badabil,
ez da idia
eta badu adarrikk,
ezin presaka joan
izango balu beharrik.

Zer da?

Beti harro-harro doan
oihaneko erregea
ikusten baduzu zirkoan
preso dagoen seinalea.

Zer da?

Oroimen eta usaimen handikoa
larru gogorreko aberea
sudurra ere izugarrizkoa
mundukko luzeena berea.

Zer da?

Oso astiro ibiltzen naiz
baina ez naiz alferra
gainean daramat etxea
eta noan lekura uzten dut
zilarrezko hari ederra.

Zer da?

Hegalari trebea
lumarik gabea,
jarri gabe arrautza,
egiten du kumea,
sagua omen da
baina ez oso gaztea.

Zer da?

Luma ederrak ditu, handia eta
zorrotza mokoa,
beti errepikatzen du
entzun eta ikasitakoa.

Zer da?

Txerriaren ahaide
ehiztarien harrapakin,
basoan du betetzen
urdaila ezkurrekin.

Zer da?